

Arrazakeria gaur egun

Alain Touraine

Racisme et modernité, 1993

Itzultzailea: Joseba Ossa

Alain Touraine soziologo frantziarrak arrazakeriaren fenomenoaz aztertzean diferentzia eta desberdintasunaren kontzeptuak bereizten ditu, eta biak hartzen ditu arrazakeriaren osagai ezinbestekotzat. Haren ustez desberdintasun kulturalak ez dira, berez, nahikoak arrazakeriaren fenomeno argitzeko; ezta diferentzia soilik ere. Hortik abiatuz heltzen dio artikuluko ideiarik garrantzitsuenetako bati: modernitatearen gaiari, alegia. Egilearen ustez, Arrazakeria modernitatearen gaitz soziala da.

Bigarren atalean modernitatearen eta nazioaren arteko harremanen arazoa aztertzen du, arrazakeria ez baita norbanako edo kategoria sozialen aurka zuzentzen, batik bat herrien aurka baizik, hau da, lurralde batean duten kokalekuaz eta historia kolektiboan duten lekuagatik definitutako multzo sozial eta kultural jakin batzuen aurka.

Azkenik, arrazakeriaren aurka eraginkortasunez borrokatzeko hiru orientabide proposatzen ditu, gizartearen integrazio maila altuagoak lortzeko helburuz.

The French sociologist Alain Touraine analyzes the concept of difference and that of inequality when dealing with the subject of modern racism, and considers both of them as inseparable elements of racism. He argues that neither cultural differences nor the idea of inequality are enough to explain the phenomenon of racism. He reaches the conclusion that racism is a social illness of modernity.

In the second part he examines the relationship between modernity and nation, because racism is not directed at individuals or social categories as such, but mainly against nations, that is, against social and cultural groups defined by their geographical location and their place in collective history.

In the third and last part he proposes three ways to combat racism in an effective way, in order to reach higher levels of social integration.

Diferentzia eta desberdintasuna*

Arrazakeria, herri jakin bat arrazoi naturalengatik behe-mailako herri gisa errepresentatzea da, haren ekintza eta borondatea kontuan izan gabe. Inferioritate hori mehatxu gisa bizitzen du arrazistak, hots, balio unibertsalekin edo maila altuagoko kultura batekin identifikatu eta eskusio-neurrien bidez bere gizartea mehatxu horretatik babestu nahi duen arrazistak. Talde sozial baten “naturalizazioa”, mehatxu kultural baten salaketa eta babes-, diskriminazio- edo segregazio-neurriak hartzearen aldeko deia dira arrazakeriaren hiru osagai elkartuak. Egia da arrazakeria ez dela nahastu behar bestea arbuizatzeko modu guztiekin, aurreiritzi gutxiesle edo diskriminazio mota guztiekin, eta ezin dela arrazakeriaz hitz egin ez badira ematen ez kategoria sozial baten naturalizazioa ezta haren mehatxuaren kontzientzia ere. Baina hori hala izanik ere, geure buruari galde diezaiokegu ea horrela deskribatutako fenomenoak benetako batasuna duen edo ez ote den definizioak berak artifizialki sortua izango. Kezka hori are sendoagoa da arrazakeriak bi eskusio-printzipio konbinatzen dituelako: desberdintasuna eta diferentzia. Desberdintasunaren printzipioak oso lotura estua du argumentazio biologikoarekin: beltzak edo indioak, arabiarak edo juduak –azken kasu horretan ez hainbeste– biologikoki behe-mailakotzat hartzen dira. Denbora luzez aditu arrazistak garunen konparaketaren bidez saiatu dira beren tesia frogatzen. Diferentziaren gaia, ordea, kulturala da: tradizio islamdarra duten etorkinak asimilaezinak direla esaten da, kristau zibilizazioko partaide diren

espainiar edo portugaldarrak ez bezala. Pierre-André Taguieff-ek (1988 eta 1991) lan garrantzitsu batean defendatu du bi printzipio horiek hain bereizita zeudela, ezen praktikan bi arrazakeria baitaude. Lehenak atzerritarra –eta bereziki kolonizatua– naturalizatu eta haren inferioritatea salatzen du. Bigarrenak, diferentziaren arrazakeriak, presentzia handia du pentsamendu garaikidean, batez ere erlatibismo “Hirugarren Munduzaleari” loturik, erlatibismo horrek mendebaldeko kultura kritikatzeko baitu izaera unibertsaleko kultura jasoaren monopolioa aldarrikatzeagatik. Diferentziaren arrazakeria horrek beste kulturak arbuizatu ditu, kultura bakoitzaren garbitasunaren eta espezifikotasunaren defentsaren izenean. Ez ote da Hirugarren Munduaren alde daudenen defentsa izan –kultura arabiar, afrikar edo indoamerikarren eskubideen defentsa, alegia– Alain de Benoist bultzatu duena bere partikular-tasunaz jabetzen den kultura europar kontzientea defendatzera, hau da, oinordetzan inposatu nahi izan zaion unibertsaltasunaren aurrean mesfidantzaz jokatu duen kultura europarra bultzatzera? Taguieff-ek erantzen du arrazakeriaren aurkako kanpainek jasandako porrotaren arrazoa haxe dela: desberdintasunaren arrazakeriari erasotzen diola, diferentziaren arrazakeriaren aurrean izan arren.

Ezinezkoa da arrazakeriari buruzko gogoetak egitea ikerketaren objektuaren definiziora garamatzen hipoteka hori altxa baino lehen, zeren definizioa bakuna izan beharrean bikoitza bada oso arriskutsua baita nahasketa areagotu besterik egiten ez duten azalpen orokorrak bilatzea. Arriskua are

* *Desberdintasun* hitza maiz *diferentziaren* sinonimo gisa erabili izanak nahasketa eragin dezake artikulu hau irakurtzean. Testu honetan, beraz, frantsesezko *inégalité* kontzeptua itzultzeko *desberdintasun* hitza erabiltzen da, eta egileak aniztasunaren kontzeptuarekin lotzen duen *différence* itzultzeko, berriz, *diferentzia* (ltz. oh.).

handiagoa da, arrazakeriaren adierazpen biologikoa, zuriak ez diren arrazen inferioritatearen salaketak, gaur egun bakanagoak eta ahulagoak baitira XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran baino. Batzuek pentsatzen dute aipatu gainbehera arrazakeria horien eta dominazio kolonialaren arteko lotura estuen bidez esplicitzen dela; beste batzuek, ordea, joan den mendean hain indartsua zen pentsakera organizistak, arrazoi orokorra- goak direla medio, izandako gainbeheran ikusten dute horren arrazoaia. Baina bereiz ote daitezke desberdintasuna eta diferentzia? Nire ustez, aitzitik, arrazakeria bi elementu horien osagarritasunaren bidez definitzen da.

Desberdintasunaren gaiak oso lotura sendoak ditu, bai, menperakuntza kolonialarekin, baina zenbait pentsalari Frantzia garaikideko arrazakeria antiarabiarra herrialde frantziarraren historia kolonialaren bidez esplicitzen saiatzen diren arren –berezi Aljerian zeuden kolono ugarien presentziaren bidez–, ez ote dugu onartu beharko kolonialismoak hori baino jarrera konplexuagoak sustatu dituela? Zeren inferioritatearen gaiak presentzia handia izatearen arrazoaia, “indigena”-ren mesprezua eta “arrazazuriaren” nagusitasunaren kontzientzia leku guztietara zabaldu izanaren arrazoaia potentzia kolonialaren rol zibilizatzailearen kontzientziarekin eta asimilazio borondatearekin lotuta baitago. Asimilazio-borondate hori kolonizatuen aurrean nolabaiteko irekitasun batean islatzen da, bai nazionalitate frantsesaren aldetik eta bai ingelesaren aldetik ere. Garai kolonialean Frantziak ez du arrazakeria antiarabiar handirik ezagutu; bai, ordea, juduen aurkako arrazakeria gogorra. Horrek ez du inola ere frogatzen kolonizatzaileek jarrera onberak izan dituztenik kolonizatuen

aurrean, arrazakeria sortarazteko herri kolonizatuen inferioritate-kontzientzia soila baino zerbait gehiago behar dela baizik. Asimilazioan ipinitako itxaropenaren ordez inbasioaren edo identitate-galeraren beldurra nagusitzen denean soilik agertzen da arrazakeria.

Hala ere, gizarte kolonizatzailearen jarrera arrazakeriara mugatzen ez bada ere, posizio dominatzailea eta kolonietan bere eredu sozial eta kultural propioak zabaltzeko borondatea duen aldetik, gizarte kolonizatuen baitan kolonizatzaileak –kolonoak edo bestelakoak– gutxiengo izanik, mehatxatuta sentitzen dira eta elite indigenen konkurrentzia oztopatu nahi dute. Hortik dator kolonizatuen hezkuntza eta goranzko mobilitatea mugatzeko egiten duten presioa; baita mehatxuzko sentimenduarekin batera indartzen diren portaera eta jarrera arrazisten agerpena ere.

Bestetik, diferentzia kulturalaren gaia ere ez da bera bakarrik nahikoa arrazakeria sortarazteko. Kultur aniztasunak ez du arrazakeria bihurtzeko arriskurik harik eta kultura diferentea mehatxutat hartzen den arte, zeren kulturen banaketa espaziala eta segregazio naturala desagertu egiten baitira munduaren batasun-prozesuaren eraginez. Artifiziala da arrazakeria eta Hirugarren Munduaren aldekoen diferentzia kulturalen errekonozimendua elkarri lotzea. Arrazakeria, aitzitik, beste faktore batzuen eraginez sortzen da: distantzia babesleen suntsipenarekin, etorkinen deskonposizio kulturalarekin –Parisera, Lyonera edo Marseillara etorriak, lehendabizi probintzietatik, gero herrialde mugakidetatik eta berriki urrutiko lurraldeetatik–. Inmigranteak batez ere pobreak dira, izaki frustratu eta bortitzak; ez dituzte ez lege sozialak ezta ezarritako ohitu-

errespetatzen. Muturreko diferentziak jakinmina, nahasketaren arbuioa edo, aitzitik, mestizajea bilatzea eragin dezake. Eta portaera horiek guztiak ezin dira arrazakeriarekin identifikatu. Arrazakeria ager dadin ezinbestekoa da goian dagoenak behekoaren mehatxua sentitzea, kalitateak kuantitatearena eta aberastasunak txirotasunarena. Diferentziaren eta inferioritatearen elkarketak soilik sortarazten du arrazakeria.

Modu orokorragoan hartuta, oraindik guregandik hain hurbil dauden eta tradizionaltzat hartzen diren gizarteak, eta zehazkiago ordenaren, estatusaren (*Stände*) gizarteak, ez dira gizarte arrazistak, nahiz eta odolaren, leinuaren rola azpimarratzen duten, nahiz eta kontzeptualki elkarren aurka ipintzen dituzten, adibidez, jatorri germaniarra duten soldaduak, frankoak, eta jatorri galo-erromatarra duen populazio nekazaria. Are onartezinagoa litzateke arrazakeriaz hitz egitea kasta-gizarteari buruz aritzean, hau da, kastak garbitasunaren edo garbitasun ezaren izenean hierarkizatzen dituen gizarteaz. Bestetik, Louis Dumont-ek "holista" izendatzen dituen gizarteek hierarkizazio-irizpide sozialak eta ez-sozialak elkartzen dituzte. Arrazakeria, hots, kategoria sozialen inferioritate edo nagusitasunaren naturalizazioa, ezin da agertu gizarte "aktiboa" sortu arte, hau da, aldaketa sozialean jokaturako rolean oinarritutako hierarkia agertu arte. Partikulartasun eta muga kulturalak eta sozialak ahuldu edo desagertzen direnean sortzen da, hain zuzen ere, arrazakeria, gauza guztiak nahasten direnean eta norbanako bakoitzari bere diferentziak ematen dion babesa desagertzen denean.

Desberdintasun sozial soilaren ideiak arrazakeria sortarazi ezin duen bezala, kultur aniztasun absolutuaren ideiak ere ezin du halakorik sortarazi. Claude Lévi-Straussek (1952) UNESCOn egindako konferentzia ospetsuaz zalaparta eragin zuen razionalismo unibertsalistaren defendatzaileen artean, baina zaila da hark adierazitako ideietatik gehiegi urruntzea. Lévi-Straussek gogorarazi zuen kultura, gizarte bezalaxe, osotasun koherentea dela, haren barne elkartrukaketak kanpoko munduarekin dituenak baino indartsuagoak direla, eta integritatea lortzeko mugak neurri batean kontrolatu egiten dituela. Unibertsaltasuna beste maila batean aplikatzen da, giza-sistema ororen oinarri diren espiritu-eragiketen mailan, alegia, eta ez antolaketa sozialaren edo sinesmenen edukien mailan. Kulturen aniztasunaren errekonozimendua hain egokituta dago errealitate behagarriari, ezen ezin baitzaio bere baitan arrazakeria eramatea leporatu. Kultura unibertsal bateratua- ren arau arriskutsuei soilik egiten die aurre, eta beraz, ahulak defendatzen ditu indartsuen aurka. Diferentzien errekonozimendua arriskutsua bilaka dadin desberdintasunaren ideia sartu behar da berriro ere. Hau da, herri arbuaiatua biologikoki behe-mailakotzat eta aldi berean mehatxagarritzat hartu behar da, modernitatean sarrera arrakastatsua egiteko gaitasuna duen herritzat. *Arrisku horiaren*¹ gaia arrazakeriaren adierazpen klasikoa izan da. Herri juduaren orde semitei buruz hitz egitea errealitate sozial eta historiko baten naturalizazio arrazista egitea denez inoiz onartu behar ez litzatekeen izen batez (antisemita) izendatzen diren jarrerak ere izaera berbera dute. Mundu modernoan, berriz, arrazakeriak arbuaiatu egiten ditu asimilazio

1. *Pévil jaune* japoniarren aurkako xenofobia adierazten duen kontzeptua da (Itz. oh.).

bidean dauden juduak, hau da, gizarte moderno honetan sartzen ari diren juduak, eta arbuio hori argumentazio biologikoaren bidez soilik justifika daiteke. Gure gizarte modernoa ekintzazko gizartea delako, *achievement* (lorpen eta arrakastazko) gizartea delako du, hain zuzen, porrota eskusio gisa azaltzeko beharra, eta ez arrazoi sozial edo kulturalengatik, beste ezer baino lehen arrazoi biologikoengatik baizik. Arrazakeria ez da garatzen kulturaliki diferenteenak direnen aurka, gizarte eta kultura jakin batean sakonkien sartzen direnen aurka baizik. Marokoko erregea oso modu logikoan borrokatu da inmigrante marokoarren integrazio sozialaren aurka Frantzian, distantzia kultural eta sozialak gatazka mugatu egingo duela pentsatuz, aljeriarrek –gizarte frantziarrarekin elkarrekintza zaharrago eta sakonagoan izanik– arbuio bortitzagoa jasan izan duten bitartean.

Azkenik, ezin da esan arrazakeria ematen denik gizarte jakin batek bere burua defendatzen duenean, balio kultural eta erlijioso diferenteen izenean gizarte horri eraso egiten diotenak arbuizatzen dituenen. Ezin zaio arrazakeria deitu lurralde frantziarrean nesken eszisia egitea arbuizatzeari edo ekintza terroristekin loturik dauden sare erlijioso eta politikoak deusezteari. Talde horien aurrean hartzen den jarrera dena delarik ere, ez ditu errealitate sozialak eta kulturalak naturalizatzen; aitzitik, diferentzia sozial eta kulturalen interpretazio politikoa ematen du –maiz faltsua edo gehiegizkoa– musulman oro terrorista potentzial gisa ikusi beharko balitz bezala.

Horrenbestez, arrazakeriaren analisiaren oinarrian dagoen gairik garrantzitsuenetako bat agertzen zaigu: modernitatea. Arrazakeria modernitatea-

ren gaitz soziala da. Modernitateari diferentzia onartzea kosta egiten zaionez, desberdintasun bihurtzen du. Ofizioak eta korporazioak desagertarazi egiten ditu, koalifikazio- eta soldata-maila desberdinetan hierarkizatutako soldatapekoek ordezkatu. Baina integrazio desorekatu hori ez da inoiz erabat burutu. Diferentzia ez da erabat desberdintasun bihurtu. Zati bat eskusio bihurtu da zenbait osagai kulturalen izaera asimilaezinaren izenean.

Herrialderik kolonizatzaileenek –Britainia Handiak eta Frantziak– herri kolonizatuen aurkako mugimendu arrazista handirik ezagutu ez duten bitartean, Estatu Batuek –modernitatearen sinbolorik garbiena, iragan aristokratikorik gabea eta Weber-ek dioen bezala klasearen eta ez estatusaren herrialdea izanik– etengabe ezagutu dituzte mugimendu arrazista indartsuak, batez ere gizarte esklabistaren suntsipenaren ondoren, hegoaldea eta haren plantazioak iparraldeko merkatu-ekonomian sartu ondoren, hegoaldeko estatuek “Jim Crow” legeak hartu ondoren. Gizarte modernoaren ezau-garrietako bat desberdintasuna eta eskusioa inoiz erabat bereizi ez izana da. Gorantz doan mugimendu kolektibo batek animatutako gizartearen irudia ez dator bat errealitatearekin, baina baztertuak ez dira inoiz beren diferentziagatik soilik definitzen; aitzitik, *drop-out*, pobre edo langabetu gisa definitzen dira, hau da, inferioritate-kontzeptuetara joz, edo egoera sozio-ekonomiko baxuko pertsona gisa. Eta horrek pentsarazten digu modernitateari lotutako arrazakeria ez dela absolutua, behe-mailako jendearen errepresentazioaren aurpegi bat besterik baizik, aldi berean “inferior” eta “diferente”, aldi berean pobre eta asimilaezin direnenak.

Proposatu berri den hipotesiak harridura sor dezake: askok espontaneoki pentsatzen dute modernitateak arrazakeria desagertarazi egiten duela, partikularitasunak ahultzen dituelako eta norbanakoak egintzen arabera epaitzen dituelako, ez berez direnagatik. Baina ideia hori Taguieffek arrazoiz kritikatzeko dituenetakoa da. Taguieffek arrazakeriaren aurkako borroka-mota horren eraginkortasunik eza salatzen du, zeren gizarte modernoaren –eta beraz, tradizional deitzen diren gizarteen– ikuspegi okerra inplikatzeko baitu, errealtateetik urrunduak, funtsik gabeko adostasun desbideratzailea erraz jasotzen duen ikuspegia, alegia. Gizarte modernoa arrazakeriaren agerpenaren lekua izateko arrazoia, hain zuzen, hau da: hierarkian eta distantzia sozialean oinarritutako harreman tradizionalak hautsi arren, jende guztia kultura unibertsalista batean integratzea aseguru ez izana, kultura hori Estatu nazionalen errealtateetik urrun baitago.

Bi adibidetan garbi-garbi ikusten da hori. Lehenik Estatu Batuena dugu, jadanik aipatua. Hegoaldeko gizartearen suntsipenak eta bertako biztanleak gizarte komertzialean sartzeak eragin zituzten segregaziozko erreakzioak mugako hirietan (Washington, Baltimore, Saint Louis, Kansas City) lehenik iparraldearen eta hegoaldearen artean. Segregaziozko erreakzio horien ondorioa beltzen ghetto handien agerpena izan zen, bai Chicagon, New Yorken eta bai iparraldeko beste hiri handi askotan ere. Hegoaldeko zuri txikiak arrazakeriazko ekintza biolentoetara abaildu ziren, eta ez beltzen mehatxupean, iparraldeko merkatarien beldur baizik. Hegoafrikan *apartheid*-a mende erdiz, 1940 eta 1990 artean, garatu izanaren arrazoia honako hau da: *afrikanerrek*, ingeles menpean

eta beltzen hazkuntza demografikoaren eta koalifikazio-mailaren igoeraren eraginez, maila-galera erlatibo horren aurka *township* direlakoetan beltzen segregazioa inposatuz babestu izana. Zuriak beltzen artean murgiltzean desagertu egingo zirela pentsatzeak “apartheid positibora” eraman du, printzipio amerikarraren ideia berberera: berdinak baina bereizita, bakoitza bere lekuan.

Gizarte moderno hau aldi berean integrazio- eta eskusio-gizartea bada, ordea (eta hori atzeritarren kasuan ez ezik –asimilatuak edo asimilaezin gisa arbuatuak– gaixo mentalen edo elbarrituen kasuan ere ikusten da, zainketa medikoaren eta elkartasun sozialaren sisteman integratuta izan arren “diferente”, “inferior” edo arriskutsu gisa hartzen baitira) zein irizpideren arabera definitzen da kategoria sozial jakin bat sozialki “inferior” edo, bestela, kulturaren aldetik asimilaezin gisa? Pentsa daiteke arrazakeria gizarte baten portaera-mota estremo delako gizarte hori bere batasunaz eta, beraz, kanpoko munduarekiko duen distantziaz definitzen denean, eta gutxiengo edo azpibilegiatuen egoeraren ondorioz zenbait “arazo sozialez” ordezkatzeko denean, gizartea berez gatazka sozialen eta barne-eztabaiden leku gisa definitu eta halaxe jokatzeko duenean.

Michel Wieviorka-k (1991) garrantzi handia eman dio maiz arrazakeriarekin lotzen den eta gizarte-mugimenduen mailan eman den norabide-aldaketari. Klase-gatazkaren eta ideologia sozialistaren ordezkari nazional-sozialismoa nagusitzen denean edo gizarte komunista botere absolutua duen estatu-alderdi bihurtzen denean eta kanpoko potentzien eta barneko aliatuen mehatxua sentitzen duenean, integrazio sozialen edo garbitasun kulturalaren

obsesioak alegiazko etsaia desozializatzeraz eramatzen du, bai gutxiengoak, bai eta okertzat hartzen diren guztiak ere.

Modernitatea eta nazioa

Ohar horiek modernitatearen eta nazioaren arteko harremanen arazoa aztertzeraz garamatzate, noski. Eta hori funtsezko arazoa da, arrazakeria ez baita norbanako edo kategoria sozialaren aurka zuzentzen, batik bat herrien aurka baizik, hau da, lurralde batean duten kokalekuaz eta historia kolektiboan duten lekuagatik definitutako multzo sozial eta kultural jakin batzuen aurka. Modernitatearen ikuskera arras optimista dutenek pentsatzen dute nazioa dela, berez, modernitatearen adierazpen politikoa. Beste batzuen artean eta bereziki Ernest Gellner-ek (1989) bikain defendatu du nazioa ez dela mundu modernoan errekonozimenduaren bila ari den errealitatea, modernitateak berak sortutako errealitate politikoa baizik, esparru tribalean edo feudalean garatu ziren gizarteak baino dibertsifikatuagoak diren gizarteak eta ekonomia konplexuei dagokien integrazio sozialaren konkrezio modua, alegia. Baina nazioa indartzen denean, modernitatearen balio unibertsalistekin kontraesanean sar daiteke. Frantziaren kasuan deigarria da integrazio nazionalarekin batera mugimendu arrazistek gora egin izana, bereziki antisemitismoak, baina baita inmigrante italiarren aurkako xenofobi kanpainak ere. Gainera, esan behar da, Gérard Noiriel-ek (1986) gogorarazten duen bezala, Frantzia ez dela benetakoa integrazio nazionalik gertatu, XIX. mendearen erditik XX. mendearen erdialdera arte izan ezik, eta eman zen integrazio hori ere, Eugen Weber-ek hain ondo aztertu duen bezala, alde

batetik lurraldeen murriztapen luzearen ondorioz, eta bestetik erabaki administratibo eta ekonomikoen zentro nazionalen garapenaren eraginez eman dela.

Eta horrek arreta ondorengo disoziazio honetan ipintzeraz bultzatzen gaitu: modernizazioaren eta Estatu nazionalaren indartzearen arteko disoziazioan, alegia. Hori zehaztasun handiagoz aztertzea komeni da, hortxe baitago arrazakeriaren argibide nagusia.

Mendebaldeko Europan eta Ipar Amerikan modernitatean sartu ziren lehen estatu nazional handiak printzipio unibertsal horiekin identifikatu ziren. Hori hala gertatu zen Britainia Handian –demokrazia parlamentarioarekin eta merkataritzaren askatasunarekin identifikatu baitzen–, Estatu Batuetan –beren errepublika federala izaera unibertsaleko printzipio juridikoetan oinarrituz sortu baitzuten– eta batez ere Frantzia iraultzailean, honek “*Liberté, égalité, fraternité*” lema hartu eta nazioa bere historiaren aktore nagusi bilakatu baitzuen, elkarrekin bizitzeko borondate gisa definituz, hau da, kontratu sozialaren bertsio zehatza eginez.

Baina nazioaren eta arrazoiaren arteko identifikazio hori, hainbeste diskurtso eragin zituen utopia errepublikar hori errealitateetik urrun dago. Gauza bera gertatzen da ezagunegia egin den oposizio batekin ere: nazioaren kontzepzio frantziarraren eta alemaniarren artekoarekin. Frantziarren arabera nazioa elkarrekin bizitzeko borondatea da, eta alemaniarren arabera, berriz, destino-komunitatea (*Schicksalgemeinschaft*), baina ikuskera frantziarraren ordezkari nagusiek, Michelet eta Renan-ek, –baita de

Gaulle jeneralak ere– nazioari buruz duten ikuskeraren arabera nazioa izaki haragiztatu eta historikoa da; beste aldetik, Herder, ikuskera alemaniarren aita izanik, Argien filosofiaren espirituan kokatzen da. Mundu modernoan sortzen diren nazioak ez dira arrazoiaren agente soilak; izaki historikoak ere badira, haragi eta odolezkoak, kultura eta memoriadunak. Batzuetan, nazio horiek modernitatearen agente izan dira, bai, baina modernitatearen eta nazioaren arteko disoziazioa oso azkar agertzen da, batez ere Alemanian, Mendebaldearen gainbeheraren gaiarekin nagusitzen diren pentsakera ezkorren korrante handiarekin. Gizarte kapitalistaren razionalismo modernoak hautsi egiten ditu bai kultura tradizionala eta bai errealitate nazionala ere. Horixe da Tönnies-ek gizartearen (*Gesellschaft*) eta komunitatearen (*Gemeinschaft*) artean egiten duen oposizio klasikoaren zentzua. Industrializazioaren lehen korrante handiak hartutako herrialde europar guztietan garatzen da XIX. mendearen amaieran kezka hori, unibertsaltasunaren arbuio hori, tradizioen eta izaera nazionalaren defentsa. Antisemitismoa izan da, lehen bezala orain, nazionalismo defentsibo horren osagaririk garrantzitsuenetako bat.

Aldi berean, garapen ekonomikoa beranduago ezagutu zuten nazioek beste bide bat hartu dute. Britainia Handia, Frantzia edo Estatu Batuen antzera beren existentzia nazionala modernitatearekin identifikatu beharrean, euren batasun nazionalaren sorrera edo beren independentziaren defentsa bihurtu dute garapen ekonomikoaren indar motore. Horrek zentzu berria eman dio nazioaren ideari: modernitatetik berezia eta, beraz, nazioaren gailentasun naturalari dagozkion eskubideak erreibindikatzeko

disposizio handikoa. Horrela ulertzen da zergatik duen hain garrantzi handia arrazakeriak –zenbait politika militaritari ideologia gisa balio izan dion arrazakeriak, alegia– garapen nazionalista hori ezagutu duten herrialdeetan, esate baterako Alemania handia, Japonia handia edo Inperio italiarra eraikitzeke asmoetan. Japoniaren kasuan –denbora luzez bere baitan itxita egon den gizartea izanik– arrazakeria batik bat agresiboa eta militarista izan da, eta behin baino gehiagotan inbaditu eta okupatu den Korearen suntsipen kultural sistematikoaren forma hartu du bereziki.

Alemanien kasuan arrazakeriaren bi formak elkartu dira: tradizioari atxikirikoa kategoriatik sozialen arrazakeria defentsiboari, batez ere antijuduari, arrazakeria ofentsiboa gehitu zaio, batik bat eslaviarren aurkakoa, *Lebensraum* baten konkistari lotua.

Lehen Mundu-Gerra eta Versaillesko Itunaren ondoren nazionalismo defentsiboa mugimendu nazional-sozialista bihurtu zen. Aldi berean salatzen zituen kapitalismoa, boltxebismoa eta juduak, hirurak kultura eta arraza alemaniarren suntsipen-forma aliatutzat hartzen zituelako. Garai berean –XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran– nazionalismo defentsibo hori eta bere forma estremoak, faxismoa, paraleloki garatu ziren Frantzian, Zeev Sternhell-en (1983) lanek erakutsi duten bezala. Lan horietako zenbait analisi diskutigarriak izan arren, agerian uzten dute faxismoaren iturri frantziarren garrantzia.

Mendebaldeko Europako antisemitismoa komunitate nazional eta kultural batek indar kosmopoliten aurka egiten duen defentsatik jaio da, diruari lotutako indar unibertsalisten kontra, juduak,

asimilazio-mugimendu zabal batean murgilduta izanik, batez ere Austro-hungariar inperioan eta Alemanian (Frantziar Iraultzak juduen eskubide zibilen berdintasuna aldarrikatuta zuen) adierazpen sinboliko bilakatu ziren, gaitz guztien errudun bailiran. Beraz, horrek ez du zerikusi handirik kristau komunitatearen antijudutasunarekin, haiek Kristoren heriotzaren erantzule gisa hartzen zituztenak soilik arbuaitzen baitzituzten. Arrazakeria hori osoagoa da, zeren antijudutasuna bestearen arrazakeria baitzen, batez ere kulturala, ez hain biologikoa. Antisemitismoa, ordea, –unibertsaltasun abstraktu eta mehatxagarriaren aurkako defentsa gisa hartuta– lehenik eta behin norberaren arrazakeria da, norberaren definizioa arrazaren bidez, eta horrek esan nahi du –antisemitismoak bere indarkeria nagusia erabiliz egiten duen aldaketa harrigarri baten bidez– unibertsaltasunaren agentea irizpide antiunibertsalistez birdefinitzen dela, aldi berean biologikoak eta kulturalak diren irizpideen bidez. Antisemitismo horrek soilik eramaten du etsaia desagertarazi nahi izatera, antijudutasunak urrunketa edo segregazioa bilatzen zuen bitartean. Arrazoiaren eta nazioaren arteko batasuna hausten denean garatzen da arrazakeria mundu modernoan.

Hipotesi horrek ahalbidetzen du, baita ere, arabiarren aurkako arrazakeriaren garapena argitzea. Dominazio kolonialak ez du, berez, arrazakeriarik eragiten, –indigenaren mesprezua eta esplotazioa kolonizatzailearen misio zibilizatzailearekin lotuta agertzen delako, hau da, nazio dominatzailearen eta arrazoiaren arteko identifikazioarekin– baina kolonialismoaren gainbeherak bai, posizioak aldatu eta arrazakeria abiarazten du. Aljeriako frantziarrek bitzta eta boterea arris-

kuan zutela sentitzen zuten, Aljeriako askatasun nazionalaren mugimendua- ren aldetik, mugimendu hori neurri batean gai unibertsalistekin identifika- tzen zen arren. Haien iritziz hasiera batean kolonizazio frantziarra laikoa eta modernoa zen eta fanatismo musulman atzerakoari aurre egiten zion (hori zen Guy Mollet bezalako sozia- listen diskurtsoa). Baina independen- tziaren ondoren zenbait buruzagi na- zionalistak ere neurri batean asumitu- tako diskurtso horrek ezin izan zuen askapenerako borroka geldiarazi. Orduan gertatu ziren fenomeno hauek: norabide-aldaketa basatia, asimilazio- -asmoaren gaia bertan behera uztea eta –lehenik OASen Aljerian, gero Aljeriako frantses ohien eta inmigrante aljeriarren topaleku zen Frantziar- komunitate frantziarraren defentsa-mo- du esentzialistan, hau da, modu arra- zistan definitua, eta “inferior”tzat eta mehatxagarritzat hartzen direnen arbuioa.

Kasu horretan, antisemitismoare- nean bezalaxe, arbuio biologikoa eta arbuio kulturala ezin dira elkarrengan- dik bereizi. Erabateko arrazakeria norbera eta bestea modu naturaliza- tuan definitzea da, baina arrazakeria- ren bi fase horiek ez dira inoiz erabat batera gertatzen, zeren modernitateak bere burua kulturaren bidez definitu ez ezik (hori primitibotasunaren aurrean egiten du, primitibotasuna termino bio- logikotan definituz) nazioaren, etniaren eta arrazaren bidez ere (modu arrazis- tan) definitzen baitu bere burua arrisku berri baten aurka: diruaren munduaren generalizazioak edo sistema mundia- lean nazio berriak sartzeak dakarren mehatxuaren aurrean. Hortxe dago arrazakeriaren dinamika: bestearen definizio kulturala eskatzen duen nor- beraren arrazakeriaren eta norberaren definizio kulturala inplikatzten duen

bestearen arrazakeriaren arteko osagarritasun eta oszilazio horretan.

Eta arrazakeriak garatzen jarraitzen du, nazioaren eta arrazoiaren arteko disoziazioa ere gero eta sakonagoa delako. Baina garapen horrek bi norabide desberdin har ditzake: nazio dominatuei dagokienez, atzerriarren eraginari lotuta agertzen den eta antolaketa sozialak hankaz gora ipintzen dituen modernitatearen penetrazioak bestearen arbuioa eramaten du, antijudutasun kristauarenaren antzeko arbuioa, alegia. Infidela salatu, gerra santurako deia egin, eta inpuru edota sakrilego gisa agertzen direnen aurka heriotza-sententziak jaulkitzen dira, atzerriar edo etsaien aurka baino gehiago. Atzerakada horrek arrazakeria komunitariora eta are erlijiosora ere eramaten du, eta onartu beharra da oso zabaldua dagoela, batez ere modernitateetik urrunduta sentitzen den mundu islamdar zabalean. Azken horiek maiz nazio arabiarren defentsa kulturala bultzatzen dute, eraso arrazistak egitera iritsi arte, “txakur” juduen edo mendebaldarren aurka. Arrazakeria herrialde dominatzaileetan soilik dela pentsatzea arbitrarioa litza-teke. Herrialde dominatuetan, kolonia-ohietan, forma estremoetako batzuk hartzen ditu. Golkoko gerrak arrazakeria antijuduen manifestazio masiboak lehertarazi zituen, afrikanerren *apartheid*-a bezain gogorrak, batez ere Israelen existentziaren mehatxu zuzena (palestinarek jasaten dutena) bizi ez duten populazio arabiarren artean.

Nazio dominatzaileetan, berriz, modernitatearekin identifikatzeak asimilazio-gaitasun handia sortzen badu –Britainia Handia eta Frantzia oso garbi ikusten da hori, eta are garbiago Estatu Batuetan– identitate nazionala eta etorkizun ekonomiko eta

soziala mehatxatuta sentitzen dituzten norbanakoek arbuiatzen dituzte inmigranteak, eta ez arrazaren izenean, haien inferioritate biologikoaren izenean eta asimilaezinak direlako baizik. Horrek esan nahi du hiritar horiek ez dutela jadanik sinesten beren asimilazio gaitasunean, eta historiagatik, kulturagatik, finean arrazagatik definitzen dituztela beren buruak; horrela, asimilaezin egiten ditu destino-komunitate zahar horretako kide ez direnak. Europa garaikidean Alemania da arbuio-mota hori ofizialki gehien praktikatzen duena: hiritartasun alemaniarra lortzea oso zaila da, ia ezinezkoa, langile inmigranteentzat eta haien ondorengoentzat; oso erraza da, ordea, (ia automatikoki lortzen baitute) duela mende batzuk Ekialdeko Europara emigratu zuten populazio alemaniarren urruneko ondorengoentzat, kasu askotan kultura eta hizkuntza alemaniarra galdu badute ere. Zaila da kasu honetan arrazakeriaz ez hitz egitea, nahiz eta forma leunduak hartzen dituen eta nazionalitatearen ukapenarekin batera langile inmigratuen benetako integrazio ekonomikoa lortzen saiatzen diren.

Azkenik, hirugarren arrazakeria-mota bat ere defini genezake, herrialde intermediario edo bitartekoena, esate baterako Latinamerikako herrialde gehienena. Mendebaldeko ereduak indar handiz erakartzen du populazioaren gehiengoa –askotan dependentzi maila altua eraginez– baina maiz indiarren edo beltzen aurka itzultzen da, modernizaziorako bidean oztopo gisa agertzen zaizkielako, eta horrek P. González Casanovak (1969) barne-kolonizazio deitu duenaren adierazpen ideologikoa den arrazakeria sortzen du. Mexiko, Erdialdeko Amerika eta herrialde andinoetako –Txile barne-indiarrak izaki inferiortzat hartzen dira,

arinki kolonizatuta dauden herrialde horien atzerapenaren erantzule gisa. Are larriagoa da Errepublikak Dominikarreko gobernuek inmigrante edo aldizkako langile haitiarren aurka burututako errepresio arrazistaren kasua, behin baino gehiagotan masakre masiboen itxura hartu duen errepresioa, alegia.

Utopia errepublikarra, hots, nazioa arrazoiaren eta aurrerapenaren agente dela pentsatzea, barregarri bihurtu da, XX. mendeko Europan nazionalismoek formarik estremoak hartu baitituzte. Utopia horrek ez du zentzurik izan beren existentzia nazionala interes ekonomiko eta politiko atzerritarren zerbitzuan dagoen modernizazioaren penetrazioaren aurka defendatuz afirmatu eta ezagutarazi behar izan duten herrialdeetan; ideologia dominanteaz gainezka dago, baita Estatu Batuen kasuan ere, inmigranteen nazio horretan, duela gutxi berriro mugak ireki arren komunitateekiko errespetuaren ideien izenean segregazioa eskala handian praktikatu baitu.

Arrazakeria fenomeno orokor edo dominante gisa hartzeko tentazioa sortzen da, zeren nazioaren eta arrazoiaren arteko identifikazioari erreparatuz gero, gizarte partikular baten eta balio orokorren artekoa aztertuz gero, kasu horiek salbuespenak direla baitirudite, diskurtsotik hurbilago praktikatu baino. Baina horrek ez du esan nahi arrazakeria normalizat hartu behar denik, muturreraino eramaten baitu aipatu disoziazio hori; modernitatearen itxaropena bertan behera uzten du, nazio mehatxatu baten defentsaren izenean, modernitate atzerritarren inbasio-gatik bere kultura eta existentzia fisikoa bera mehatxaturik dituen nazioaren defentsaren izenean, alegia. Horregatik, nazio zentraletan arrazakeriak

forma leunduak hartzen ditu normalean, eta batzuetan ez da hura existitzen denik onartu ere egiten. Horren arrazoia da etorkizunaz gehien kezkatzen diren kategoria sozialek, eskusiozko jarrera defentsiboetarako joerarik handiena dutenek, badakitela zein diren beren egoeraren abantailak, zein modernitate ekonomikoak eskaintzen dizkien aberastasuna eta indarra. Normala izan ohi da, baita ere, pertsona berberak modernitatea goraiatzeko ikusketak eta aldi berean beren nazioaren dinamismora deitzen eta identitate nazionala arriskuan jartzen duela iruditzen zaien hura arbuiatzen. Bi jarrera horiek nahiko erraz konbinatzen dira, esate baterako Frantzia inmigrante magrebiarregana desbideratzen denean Japoniaren arrakasta ekonomikoak sortarazten dituen kezkek. Arrazakeria purua arraroa da, batik bat gizarterik garatuenetan, baina gero eta gehiagotan agertzen da dimentsio arrazista bat modernitatearen babes eta mehatxua aldi berean sentitzen duten kategoria guztietan.

Zentzu horretan aplikatu dakieke arrazakeriaren nozioa herri edo nazio ez diren beste multzoei. Esate baterako, esan daiteke badagoela emakumeen edo haurren aurkako arrazakeria ere, bi kategoria horiek maiz izaki naturalizatu eta desozializatu gisa tratatu izan baitira. Emakumeak eta haurrak izaki irrazional gisa hartu izan ohi dira, beren pasioen –hots, gorpuzaren eta sexualitatearen– biktimak gisa, hilekoaren odolaz edo masturbazioaz zikindutako izaki inpurutat. Gizarte modernoan garbitasun falta hori ez da jadanik lotzen estatus eta rol jakin batzuetara, eta inferioritate bihurtzen da, baina baita mehatxu ere, bereziki modernitatean zailtasunez sartzeko den klase ertainaren kasuan, bere lekua ez baitago inoiz asegaratu-

ta modernitate horretan. Antzeko arrazoiak direla-eta arrazakeria antihomosexual batez ere hitz egin behar da, homosexualen esterminazioak hala erakusten baitu, nazien kontzentrazio-eremuetan –bereziki Auschwitzen– juduekin, ijitoekin eta poloniarrekin batera hiltzen baitzituzten. Arbuio horren oinarrietako bat homosexualen jokabidearen izaera “naturala” da, homosexual askok onartua, baina arrazoi kulturalen bidez esplikatzen da, agian gehiago homosexualitateak gizarte modernoaren irudi energetikoa hausten duelako, *contra natura*-ko jokabideen kondena erlijiosoarengatik baino. Kategoria sozial jakin bat izaki ez sozial gisa, naturalki inferiorizat hartzen denean eta zibilizazioaren printzipio eta produktuen aurkako mehatxu gisa ikusten denean izaten da arrazakeria.

(...)

Arrazakeriaren aurka borrokatzeko

Gai honek Frantziako esparrua gainditzen duen ondorio batera garamatza. Gizarte tradizionalak, partikularitasunean oinarrituz sortuak izanik, bestearen –barbaro, basati edo inpioaren– arbuioaren berariazko formak ezagutu dituzte. Batasunerako joera duen gizarte modernoan sortu dira, hain zuzen ere, desberdintasuna eta bere forma estremoak: desberdintasun naturala, hau da, aldi berean inferioritate biologiko eta distantzia kultural gaindiezina den desberdintasuna. Faltsua eta arriskutsua da espiritu modernoaren eta bere unibertsal-tasunaren berrindartzeak esklusioa, segregazioa eta arrazakeria desager-taraziko dituela sinestea. Gizarte modernoak integrazio-gaitasun izugarria du eta –horrexegatik, ez hori hala izan arren– berak gehiago eskluitzen du aurreko gizarteek baino, diferentzia eta

hierarkia bermatu eta transmitituen sistemetan oinarrituz funtzionatzen zuten gizarteek baino. Gaur egun badirudi gehiengoaren iritziz *one best way* baino ez dela existitzen eta mundu osoak gizarte bakar bat eratzten duela, desberdintasunak batez ere ekonomikoak izanik. Badirudi merkatu libre ekonomiko, politiko eta kulturala ez den beste sistemaren batean sinestu dutenek egin duten gauza bakarra jende guztiak hartu duen bidean atzeratuta geratzea izan dela. Bateratze horren ondorioak bi dira:

Alde batetik izugarri zabaldu da munduko klase ertaina, hots, ondasun material eta sinbolikoen kontsumo generalizatua. Eta gogoan izan behar da ondasun horiek gaitasun handia dutela –denbora luzez azpibalaratuak izan arren– gizarte eta kategoria sozial arras desberdinetan sartzeko. Horrela, berezitasun kulturalen defentsak artifiziala dirudi mundu honetan, kontsumo internazionalizatu handian parte hartzen ez duten giza taldeak munduko populazioaren gutxiengo txiki-txiki bat besterik ez baitira. Bestetik, barnean (*in*) eta kanpoan (*out*) daudenen arteko distantzia indartu egiten da eta antolaketa sozial eta kulturalaren forma zaharrek bizi duten mehatxua indartzen ari da, batez ere nazio eta estatu nazionalak jasaten dutena. Masa-gizartea eta -kultura bazter guztietan modu in-pertsonal eta erakargarrian zabaltzen den bitartean, pertenezia mehatxatua eta sistematik baztertuta daudena- nak zauritu egiten dira, eta guztiak erakartzen dituen masa-gizartearen aurka elkartu ezin dutenez elkarren aurka jotzen dute. “Frantziar zaharrek” inmigranteak salatzen dituzte, Estatu Batuetako klase ertain probintzialak beltzekin edo hispanikoekin egiten duen bezalaxe, eta mundu honetan, aurrerapena eta masa-kultura esparru tradi-

zionaletatik, borondate orotik eta kontrol politiko guztietatik erabat aske daudela dirudien mundu honetan, bi taldeetako bakoitza behartuta dago bestea –baina baita norbera ere– izate gisa definitzera eta ez ekintza gisa, tradizio kultural eta elementu genetikoen arabera eta ez historia ekonomiko sozial eta politikoaren arabera.

Zenbat eta garbiago izan –eredu liberalak nahi duen bezala– interesaren eta eskaera komertzialaren indar inbertsonalen nagusitasuna munduan, hainbat eta eraginkorragoak dira gizakiak beren integrazio sozialeko forma zaharretatik eta mugatuetatik askatzen dituzten indarrak, eta –elkartrukaketa- ren eta kontsumoaren gorespenarekin batera– indartsuagoa da identitate pertsonalaren eta kolektiboaren bilaketa ere, ondorio gisa intolerantzia eta identitate horren aurrean mehatxu gisa agertzen denaren arbuioa eragin dezakeen bilaketa, alegia. Modernitatearen eta nazioaren arteko disoziazioa ez ezik trukaketa ekonomikoaren eta aktore-kategoria guztien arteko disoziazioa ere ezagutzen dituen mundu honetan, langabezia teknikoak eta merkatuen etengabeko gora-beherak kultura frantziarraren egonkortasun ia naturalarekin batera existitzeko joera dute.

Norbaitzuek atzera jotzeko tentazioa dute, Estatu nazionalaren subiranotasuna berrezartzeko. Izan ere, Estatu nazionala izan zen integrazio sozial eta nazionalaren aldeko politika sozialdemokraten garapen-eremu konkretua. Alferrik, ordea. XX. mendeko lehen erdialdeko ametsak ihes egin du eta gaur egun ekonomiaren eta kulturaren arteko disoziazio itzela bizi dugu. Hain da larria disoziazio hori, ezen ekonomia batik bat finantza-mer-

katu bihurtu baita, eta kultura, berriz, natura. Jainkoen arteko gerraren forma estremoia eta naturalizatua da, Weber-ek esaten zuen bezala, mundu modernoaren aurpegietako bat; bestea sekularizazioa eta ekonomia liberalaren garaipena da. Arrazakeria, horrenbestez, gizarte modernoan haustura horren forma estremoetako bat besterik ez da. Finantza-trukaketen garapena bezain estremoia, trukaketa horiek urrundik gainditzen baitituzte salgaien eta zerbitzuen trukaketa ekonomikoa. Iharduera ekonomikoaren zati hazkor baten artifizialtasunari kulturaren zati hazkor baten naturalizazioa dagokio. Merkatuak eta talde etnikoak aurrez aurre daude nahiz eta guk denbora luzez sinestu izan dugun ekonomia eta kulturaren arteko integrazioa gerta zitekeela errepublikaren baitan. Masa-gizarte eta -kulturaren barnean jende gehiagoren integrazio sozialerako eta asimilaziorako aukerak areagotuz muga daiteke arrazakeria neurri batean. Baina ilusio arriskutsua da horrelako ekintza batek bere helburu guztiak lor ditzakeela sinestea. Hori ideologia dominatzailearen ikuspuntua da, hots, aberastasun gehiago sortuz, tolerantzia handiagoa erakutsiz eta inguruko aldaketa guztietara modu malguagoan egokituz *out* guztiak integra ditzaketela uste duten *in*-en ikuspuntua.

Aurkako norabidean joan behar da, objektuen mundua birsozializatu, zeinuen unibertsoan zentzuaren presentzia sartu berriro, hau da, posible eta beharrezko diren aukera sozial eta politikoak agerian utzi. Barnesartu eta baztertuen arteko oposizioaren ordeztu “aldeko” eta “kontrako”en artekoa, –politika eta antolaketa sozialaren forma desberdinen bultzatzaileen arteko oposizioa– nagusitzen denean soilik egingo du atzera mundu soziala-

ren naturalizazioak (ekonomiaren artifizializazioaren kontrapartidak), eta orduan soilik gertatuko da arrazaz edo etniaz definitzen ziren horiek beste zerbaiten arabera definituko direla: beren historiagatik eta aldaketa ekonomikoetan eta aukeraketa politikoetan izandako partehartze aktiboarengatik.

Gizarte arras irekiaren aldeko dei guztiek –asmoak direnak direlarik erelotura garbia dute eskusioarekin, hau da, talde sozial ugariaren errepresentazio ez soziala, naturalizatua egiten duen eskusio erreala munduarekin. Adibidez, mendebaldeko balio unibertsalista eta sekularizatuen aldeko deiak ez al du zuzenean eramaten antimodernitate asimilaezin bat diseinatuzera, islamaren forma konkretua hartuz, islamari buruzko espezialista mendebaldarren eta lurralde haietako populazioaren protestak hor izan arren? Eta integritatearen salaketa hori, itxuraz hain sana izan arren, ez al da gaur egun arrazakeria baten oinarri ideologiko nagusietako bat, hots, mehatxu kultural hori haragiztatzen duten arabiarren aurkako arrazakeriaren oinarri ideologikoetako bat?

Duela gutxi zenbait intelektual eta politikaririk hiru neska musulman salatu dituzte, bortizki, eskolan belo islamikoa jantzita eraman nahi izateagatik, ikastetxeko zuzendaria beloaren aurka egon arren. Salaketa bortitz hori haserre santu gisa ager daiteke, partikularitasunen eta intolerantzien gorakada salatu eta talde integristen maniobren aurrean laikotasuna salbatzen duen haserre santu gisa, alegia. Baina kezagarria da ikustea zeinen konfiantza gutxi duten laikotasunaren extremista horiek eskolan; badirudi arrazoiaren aurrerapena sinesmenen, tradizioen eta pertenezien suntsipenaren bidez

soilik lortu ahal izango dela. Elitismo errepublikar hori maiz irrazionaltzat hartzen diren kategoriak (emakumeak, haurrak, langileak, kolonizatuak) zaintzeko erabili izan da. Beraz, hain banaketa handia ikus daiteke nazio aurreratuenetako arrazoiaren munduaren eta herri azpigaratuetakoa sinesmenen eta fanatismoen munduaren artean, ezen horrek ateak zabaltzen baitizkio arrazakeriari. Eta arrazakeriak lehenik kulturala dirudien arren zuzenezuzenean garamatza arbuio absolutura zibilizazioaren izenean, eta ondorioz, bizitza sozialaren naturalizaziora.

Hezkuntza nazionalako ministroak, Estatu Kontseiluak eta, oro har, elkarte laikoen zati batek, zenbait intelektualek bezalaxe, zorionez, posizio baikorragoak hartu dituzte, hau da, kultura transmitituen irekitasun-gaitasunean eta eskola publikoak mutilaziorik gabeko transformaziorako duen gaitasunean konfiantza handiagoa erakusten duten posizioak. Itxuraz mugatua den gertakizun horrek agerian utzi ditu uste baino sakonagoak ziren zatiketak. Egia da distantzia handia dagoela Fronte Nazionalako arrazakeria basatiaren eta intelektual horien artean, baina elkartzeko dituen garrantzitsua da urrutzen dituen baina: bi kasu horietan bestearekiko komunikazioa hautsi egiten da eta gure gizartearen asimilazio-gaitasunean zegoen konfiantza desagertu, errepresioaren mesedetan, errepresioak beharrezkoa dirudielako mehatxuari aurre egin ahal izateko. Hemen Aljeriako gerra-egoeraren antzeko zerbaitera itzultzen gara: gerra hura eskuin nazionalistak bultzatu zuen, baina sozialista errepublikar eta laikoen gidaritzapean burutu zen. Arrazakeriaren euskarri bakarra faxismoaren nostalgikoak diren extremista politikoak balira arraza-

keriak ez luke hain pisu handirik izango gure gizartean. Beraz, bilatu behar dena da zerk bultzatzen edo ahalbidetzen duen arrazakeria, bai nazionalismo defentsiboaren aldetik eta bai razionalismo errepublikarraren aldetik ere; hau da, zerk justifikatzen duen bat-batean agresio politikoarekin –hots, terrorismoarekin– identifikatzen diren jokabideen arbuio absolutua.

Arrazakeriaren aurkako borroka ezin da printzipio unibertsalisten aldarrikapenera mugatu, horiek gizartearen irudi baten alde argitsua besterik ez baitira, eta arrazakeria, berriz, itzalen aldea. Aitzitik, espazio sozial eta politikoak berreskuratu behar dira, hau da, populazio batek bere etorkizuna identitate kulturala eta eraginkortasun ekonomikoa bateratuz aukeratzeko dituen posibilitateen kontzientzia berpiztu behar da. Nazioaren –edo beste edozein kolektibitatearen– eta aurrerapenaren elkarketa berri horri ekiteko bide bakarra oinarriko demokraziaren garapena da, dualizazio- eta segregazio-indar guztien aurkako zinezko borrokaz lagundua. Arrazakeriaren aurka eraginkortasunez borrokatzeko aukera, beraz, ekintza kolektiboaren hiru orientabide hauen konbinazioan datza: a) gizarte baten perteneziazko komunitatea, b) aukera politikoen –eta beraz, interes-gatazken– argitasuna gizartean eta c) partehartze politikoa- ren hazkundera. Demokrazia, mende baten ondoren, batez ere hazkuntza ekonomikoaren etekinen banaketan aplikatu da. Gaur egun, ordea, demokraziaren erronkarik handiena gizartearen integrazioa da. Eta bi gauza horiek ez dira erabat diferentek, zeren langile taylorizatua giza makina edo motore gisa hartzen baitzen, eta beraz, desozializatuta, naturalizatuta zegoen, eta horixe da arrazakeriaren

eragiketa nagusia. Baina gaur egun ezin da dena lanera mugatu, gizarte honetan aldaketa azeleratuek bizitzaren alderdi guztiak hankaz gora ipintzen baitituzte. Horregatik, demokraziaren zortea gutxiago jokatzen da enpresetan hirietan baino, gutxiago bizitza profesionalean eguneroko bizitzan baino, gutxiago denboran espazioan baino. Globalizazio hori da, baita ere, argi gordinago baten azpian agertarazten duena lehen klase langilearen zapalketan ezkutaturik zegoen arrazakeria. Lehentasuna eman behar zaio demokrazia lokalaren garapenari. Zerbait herrialdek botoa emateko eskubidea eman diete udal-hauteskundeetan etorkinei. Iritzi publiko frantziarra oraindik neurri horren aurka dago, baina badiirudi neurri hori egokia dela konpondu beharreko arazoari aurre egiteko. Auzo txiroetako biztanleek gutxienez euren ahotsa entzunarazi eta eragina izan behar dute, beren bizilekuen isolamendua murriztu ahal izateko. Hain zuzen ere auzoaren eta hiriaren esparru horretan izango da posible bai arazo soziala arazo etniko bihurtzen duen transformazioa azeleratzea, eta bai, alderantziz, presio xenofoboak eta arrazistak mugatzea, lehentasuna integrazio sozialaren arazoei emanaz, batez ere gazte langabetuen kasuan.

Norbaitzuek kritikatu egingo dute hemen arrazakeriaren inguruan eman den definizio luzea. Baina behe-mailako arraza jakin bati buruzko erreferentzia esplizituengatik soilik kezkatuz gero, arreta guztia gainbeheran dagoen organizismoarekin duen loturagatik hain arriskutsua ez den arrazakeria-mota baten adierazpenari eskaintzeko arriskua dago. Nazio “zibilizatu” batek mehatxagarritzat hartzen duen herriaren esklusioa da arrazakeria. Beraz, zibilizazioaren eta barbariearen

arteko oposizio horren ordeztu gizarte aldakorraren barne-gatazken antolaketaz ezarritu ezabatu ahal izango da eskusio absolutua, horren ordeztu gatazka mugatuak ezarritu, hau da, nazio baten instituzio erreprezentatiboak eta identitate historikoa suntsituko ez dituzten

adierazpen politikoak aurkitzea ahalbidetuko duten gatazka mugatuak ezarritu. Gatazka sozialen birantolaketaren bidez mugatu ahal izango da arrazakerian formarik arriskutsuenetako bat duen biolentzia.

Bibliografia

- Gellner, E. (1989): *Nations et nationalisme*, frantsesezko itz., Payot, Paris.
- González Casanova, P. (1969): *La Démocratie au Mexique*, frantsesezko itz., Anthropos, Paris.
- Lévi-Strauss, C. (1952): *Race et histoire*, UNESCO.
- Noiriel, G. (1986): *Le Creuset français*, Le Seuil, Paris.
- Spengler, O. (1918): *Le Déclin de l'Occident*, 2. bol., (1922an berrikusia).
- Sternhell, Z. (1983): *Ni droite ni gauche*, Le Seuil, Paris, 1983.
- Taguieff, P.A. (1988): *La Force du préjugé. Essai sur le racisme et ses doubles*, La Découverte, Paris.
- , (1991): *Face au racisme*, I. tomoa, *Les Moyens d'agir*; II. tomoa, *Analyses, hypothèses, perspectives*, La Découverte, Paris,
- Tönnies, F. (1944): *Communauté et société*, frantsesezko itz., PUF, Paris.
- Wieviorka, M. (1991): *L'Espace du racisme*, Le Seuil, Paris.